

BIZKAIAN HONDAKINEN EGOERAREN AURREAN ADIERAZPENA



BHHKPIa (BIZKAIKO HONDAKINAK KUDEATZEKO PLAN INTEGRALA) 2005. urtean sartu zen indarrean eta 2016ra arteko indarraldia du, beraz, ebaluatu, berraztertu eta Plan berri eraldatu beharko litzateke, Estatuko eta Europako araudiekin bat eta egun dauden teknologia berriei moldatua.

Ekimen honen sustatzaileek Bizkaiko gizarteari deia egiten diogu, Zero Zabor egoerarantz bidea egiteko. Hala, Plan berriak orientazio berria eskatzen du eta aurre egin behar zaio. Filosofia horrekin bat, ziklo materialak ixtearen ildotik lan egin behar da.

Bide horretatik, 2015. urtean EBk **ekonomia zirkularra** bultzatzeko ekintza plana abian jarri zuen eta udal hondakinetan birziklatze tasa 2030. urtean % 65 izatea eskatzen zuen (indarreko helburua 2020. urtea baino lehen % 50era iristea da). Zuzentarau berriaren proposamenak ere, beste puntu batzuen artean, "biohondakinak bildu behar direla" xedatzen du.

Filosofia honek European aurrera egiten duen bitartean, Bizkaian hondakinen tratamendu sistema **agortuta** dago; bizkarrezurra Zabalgarbi da, hots, duela 25 urte diseinatutako errausketa planta, Bizkaian hondakinen tratamendua erabat baldintzatzen duena. 2015. urtean, Zabalgarbik 12.000 tona hondakin erre zituen, balio energetikoa eman gabe. 19.000 mila tona hondakin nahasi zabortegira joan zen, aldeaz aurretik tratamendurik izan gabe. 39.000 mila tona hondakinen ondoriozko erregai ere zabortegira joan zen. Lurraldeak, berriz, bereizita 2 mila tona biohondakin baino gutxiago jaso zituen etxebizitzetatik bosgarren edukiontzia bidez.

Datu horien aurrean ondorioa argia da: egungo hondakinen kudeaketa sistemak, zati batean berezia jasotzen duenak, ez du funtzionatzen. Hala eta guztiz ere, Bizkaiko Foru Aldundiak Plana luzatzea erabaki du, nahiz eta gaikako bilketa eta erretzearen gainean birziklatzea ez saritu. Modu horretan Bizkaian hondakinen arazoaren inguruko jarduerak mugatzen ditu, jatorrian gaika bildu ostean, instalazio berriak eraiki edo tratamendu berriak aplikatzeko atak itxiak baitaude, nagusiki, materia organikoa bereizita biltzearen inguruan.

Egungo BHHKPIak (2016) 2016. urterako Bizkaian materia organikoaren % 4,5 berezia biltzeko helburua du. Gaur egungo bilketarekin ez da % 1 gainditzen. Hori hondakinei buruz erakunde politikaren izugarritzko porrota da.

Gizarte iraunkorrak, zuzenak eta berdinak eraiki ahal izateko, beste eredu desberdin batzuetarantz iragaitea egin behar dugu. Horiek oinarri izan behar dute bizia eta planeta zaintzea. Aurre egin nahi diogun konplexutasunari ezin zaio erantzun solidarioa eman eta, aldi berean, ezin daitezke gizarte aldaketak

sor eta susta. Sareak eratzea, lan bateratua egitea eta diskurtso, borroka eta mugimenduak egituratzea ezinbestekoak dira aurrera egiteko. Laburbilduz, talde sinatzaileek **ZERO ZABORRAREN ALDEKO GUNE ERKIDEA BULTZATZEA** eskatzen dugu.

HONDAKINEN KUDEAKETA PLAN BERRIA (BHHKPI 2017-2028) DEFINITZEKO ZENBAIT OINARRI

Ingurumen, osasun eta europar araudiaren eskakizunekin betetzeko ezinbesteko zenbait elementu ondorengoak izan daitezke:

1.- BHHKPI BERRIA egitea eta bere helburuen artean **GARDENTASUNA ETA** herritarren **PARTAIDETZA** demokratikoa izango ditu.

2. - Hondakinen ERRAUSKETA arbuizatzea.

3.- ZERO ZABORRAREN ildotik gure ustez **MINIMIZAZIOA** lehenengo urratsa da: zaborrik onena sortzen ez dena da. Aldi berean, **EKOIZLEAREN ERANTZUKIZUNA** zorrozki zabaldu eta legezkatzea proposatzen dugu.

4.- % 65EKO EUROPAR HELBURUA BETETZEKO GAIKAKO BILKETA SISTEMAK ZEHAZTEA.

5.- KONPOSTATZEA BULTZATZEA: BHHKPIak berehala bultzatu behar du biohondakinen gaikako bilketa ezartzea Bizkaiko udalerrietako etxebizitza guztietan eta hondakin organiko GUZTIAK OSO-OSORIK bildu behar dira. Eskualdeetan konpostatzeko planta berriak eraikitzea, beharrezkoak badira.

6.- OLIOEN eta bilketa bereziaren informazioan eta kudeaketan integratzea.

7.- ITZULTZE SISTEMA AZTERTU ETA HORRETAN SAKONTZEA (GIS, ontzien gordetze eta itzultze sistemak), ontzien birziklatzeari aurre egiteko formula eraginkor bezala.

8. - MERKATARITZAN ETA DENDATAN BEREIZITAKO BILKETA ezartzea.

9. - BILKETA BEREIZIAREN ANTOLAKETA HOBETZEA ETA AUZO BAKOITZEAN PUNTU BERDEA sortzea eta, bide batez, edukiontzia murriztea.

10 .- ZABOR TASAK BERRAZTERTZEA, konpostatze sistemetan edo materia organikoaren gaikako bilketan parte hartzen duten herritarrei hobaria emateko asmoz.

11.- HEZIKETA KANPAINA, Bizkaia osoan garatu beharreko informazioa eta sentsibilizazioa, minimizazioa eta **gaikako bilketak** sustatzeko.

12.- ZERBITZU PUBLIKOA HOBETZEA: ZABOR ZERBITZUAREN EMAKIDAREN ZATIKETA

aztertzea, zerbitzuak adjudikatzeko gizarte klausulak sartzea eta hirugarren sektoreko enpresa eta kooperatibei lehentasuna ematea. Kontratazio publikoaren agirietan gizarte eta ingurumen klausulak nahiz klausula etikoak sartzea.

ATXIKIMENDUAK 2017/05/17 egunera

EKOLOGISTAK MARTXAN

IZATE

PLATAFORMA ZERO ZABOR-BARAKALDO

SAGARRAK

SINDIKATUAK

CCOO

ELA

ESK

LAB

STEEILAS

UDAL HAUTAGAIAK

BAI AHAL SESTAO

BAI BASAURI

BOROBIL, Ortuella

ELKARREKIN AHAL DA TRAPAGARAN

GALDAKAO ORAIN

GANEMOS ERANDIO

GUK-GETXO

HERRIAREN ESKUBIDEA (SQ-2D) DURANGO,

IRABAZI, BARAKALDO

KARRANZA ZABALA

ORAIN BAI SOPELA Y BARRIKA

PORTUGALUJ@ DESPIERTA

UDALBERRI EN COMUN, Bilbao

ZALLA BAI

ALDERDI POLITIKOAK

AHAL DUGU-PODEMOS

EH BILDU

EQUO

EZKER ANITZA-IU

PCE-EPK

BESTELAKO ERAKUNDE SOZIALAK

AUZOKO HERRIKOI ELKARTEA, LA CAMPA

ASOCIACIÓN DE APOYO AL PROYECTO FIARE

ASOCIACIÓN SOCIOCTURAL ESNATUZ

BIZILUR

DESHAZKUNDEA

ESPAZIO EKOSOZIALISTA/FUNDACION HITZ&HITZ

FEDERACION DE AAVV DE BILBAO

MUGARIK GABE

MUNDUBAT

OSALDE/ONG POR LA SALUD PÚBLICA

REAS: RED DE ECONOMÍAS SOLIDARIAS

RECICLANET HEZKUNTZA ELKARTEA

SARTU TALDEA

SIN PLÁSTICO

ATXIKIMENDUETARAKO EPEA ZABALIK DAGO ORAINDIK

BILBO 2017KO MAIATZAK 17